

HERNANI

Mertxe Arozamena Sagastibelza

AUZOAK, KALEAK, PARKEAK, PASEALEKUAK ETA PLAZAK

Artikulu honetan jorratuko dudan gaiak, hau da, Herriko auzo, kale, parke, pasealeku eta plazak zerrendatzeak, segida izango du hurrengo aleetan, kale eta auzoen sorrera eta izendatzea eragin dituzten gertakari historikoak eza-gutzero ematearren.

Hernaniko hirigunearen erdia, hirigune zaharra alegia, duen kokamen estrategikoa dela-eta, obalo tankeran eratutako eraikin multzoak osatzen du. Eta hauxe da hain zuzen, hernaniar guztien erreferentziagunea, herriko iharduera gehienak bertan biltzen baitira, administrazioa eta eliza batetik eta dendak eta banketxeak bestetik.

Jatorrizko hirigune zahar honek izan duen bilakaeraren ondorioz, eta berari estuki loturik, inguruetan eraikin berriak egin dira, etxebizitzak eta merkatal lokalak, herriari beste itxura bat emanez, modernoagoa.

Hiriguneko inguru hurbilenean, honen alboan hain zuzen, Elizatxo, Lizeaga, Karobieta, Latxunbe, Antziola eta Florida Auzoak ditugu. Auzo hauek guztira, bizilagun ugari biltzen dute, eta Florida auzoaren kasuan bezala, industria ere. Ondo edo gaiz-

ki, "auzoa" izena eman zaie batez ere azkenaldian sortu diren etxebizitza multzo berriei, hala nola, Latxunbe-berri, Galarreta, Etxeberri, Sagastialde eta Sagastialde berri.


Azkenaldian, Latxunbe eta Karobieta Auzoen artean, Urbieta kalearen amaieran eraikitzen ari den urbanizazio berriari, Marieluts izena eman zaio.

Aurrekoak baino urrunago, baserri inguruko beste auzo batzuk badaude, hauen garapena ezberdina bada ere. Batzuek, Ereñotzu, Pagoaga, Epele, Osinaga, Martindegi eta Jauregi auzoak kasu, nekazal inguruko izaerari eusten dioten bitartean, etxebizitzak sakabanaturik eta baserriko lanei loturik edo ez, beste batzuek aldiz, Santa Barbara, Sorgintxulo, Karabel, Portu eta Zikuñaga auzoak kasu, mugimendu urbanistiko handia izan dute, bai bizitoki, bai industria aldetik.

Planeamendurako Ara Subsidiarioek aurrikusten dutenaren arabera, Akarregi auzoak industrialde zabala izango du aurki.

Kaleek eta plazek duten tipologia ugaria da, bai lurraren topografiagatik, bai eraiki ziren garaiko ezaugarriengatik.

HERNANIKO AUZOAK



- ① AKARREGI
- ② ANTZIOLA
- ③ ELIZATXO
- ④ EPELE
- ⑤ EREÑOTZU
- ⑥ FLORIDA (ETXEBERRI, SAGASTIALDE)
- ⑦ JAUREGI (SORGINTXULO)
- ⑧ KARABEL
- ⑨ KAROBIETA
- ⑩ LATXUNBE
- ⑪ LIZEAGA
- ⑫ MARTINDEGI
- ⑬ OSINAGA
- ⑭ PAGOAGA
- ⑮ PORTU
- ⑯ SANTA BARBARA
- ⑰ ZIKUÑAGA

- +++++ UDALERRI MUGA
- IBAI
- TRENBIDEA
- ▨ HIRIGUNE ZAHARRA

H
E
R
N
A
N
I

9
5

Kale hauetako askori eman zaion izenarekin, herriko seme-alaben eta hernaniarrak ez izanik ere, Hernani herriaren alde interesa azaldu duten pertsonen oroimena ekarri nahi izan da gogora.

Udal Plenoak hartutako akordioaren arabera ezarritako izen ofizial gehienak herri erdian soilik daudela azpimarratu behar da.

Udalerriko auzo, kale, parke, pasealeku eta plazek gaur egun duten izena eta inskribaketa, Udal Pleno ezberdinetan onartu ziren, hau da, 1988ko martxoaren 29koan, 1989eko urtarrilaren 26koan, 1991ko otsailaren 28koan, 1991ko urriaren 24koan eta 1994ko abenduaren 28koan.

Pleno hauetako erabakiei jarraiki, zerrenda honako hauxe da:

AUZOAK, BAILARAK

AKARREGI BAILARA
ANTZIOLA AUZO
ELIZATXO AUZO
EPELE BAILARA
EREÑOTZU AUZO
ETXEBERRI AUZO
FLORIDA AUZO
JAUREGI BAILARA
KAROBETA AUZO
LATXUNBE AUZO
MARTINDEGI AUZO
OSINAGA BAILARA
PAGOAGA BAILARA
PORTU AUZO
SAGASTIALDE AUZO
SANTA BARBARA AUZO
SORGINTXULO AUZO
ZIKUÑAGA BAILARA

KALEAK, KARKABAK

AINGURA KALEA
ANTSORENA ANAIAK KALEA
ARISTIZABAL KALEA
ATZIETA KALEA
BITERI KALEA
ELKANO KALEA
GARTZIA GOLDARAZ KALEA
ITURREGI KALEA
ITURRIAGA KALEA
IZPIZUA KALEA
KALE NAGUSIA
KARABEL KALEA
KARDABERAZ KALEA
KARMELO LABAKA KALEA
LARRAMENDI KALEA
LIZARRAGA KALEA
LIZEAGA KALEA
MADALENA KALEA
NAFAR KALEA
OARSO KALEA
ONDDI KALEA
ORKOLAGA KALEA
PERKAIZTEGI KALEA
SAGARNA FELIPE KARKABA
SANDIUSTERRI KALEA
TXIRRITA KALEA
URBIETA KALEA
VICTOR HUGO KALEA

PARKEAK

PORTALE TXOKO

PASEALEKUAK

EZKIAGA PASEALEKUA

PLAZAK, ENPARANTZAK

ARANTZAZU PLAZA
GUDARIEN ENPARANTZA
IBARROLABURU PLAZA
MAÑE FLAQUER PLAZA
OLAETA PLAZA
PLAZA-BERRI

Onartutako izendegian halaber, Zikunagako industrialdea azaltzen da, EZIAGO POLIGONOA, eta GALARRETA, LATXUNBE-BERRI, MARIELUTS eta SAGASTIALDE BERRI etxebizitza multzoak ere.

Auzoei gagozkielarik, ez dirudi oso argia denik "auzoa" edo "bailara" deitzea, eta gainera, kasu batzuetan inskribaketa aldatu egin da.

Bestalde esan behar da Karabel eta Lizeaga inguruei betidanik "auzoa" esan bazaie ere, aldatu eta "kaletzat" izendatu egin direla.

Zerrenda azaldu dudana izanik ere, badaude beste izen batzuk, hala nola, Cincosena; Goiz-eguzki parkea, Pana, Villa Carro, Villa Maria, etab., izendegi ofizialean agertzea merezi dutenak, herrian erabiltzen

direlako eta udal ekimenak zein pribatuak bultzatutako hirigintza planetan eta agiri hainbatetan erabili egiten direlako.

Horregatik guztiagatik, eta izen zerrenda behin-betiko argitzeko helburuarekin, ez litzateke komenigarri izango Udalak, gai honetan adituak direnen txostenak egin eta gero, kontsentsu erabaki bat hartzea?

Horiek horrela, kontuan hartu behar-ko litzateke, erabaki ondoren, plakak ipini behar liratekeela, onartutako izena jarritz udalerri osoan. Komeniko litzateke halaber, izendegi berria behar bezala erabil dadin, Udalak izendegia ahalik eta gehien ezagutzera ematea.

Eta bukatzeko, Hernanin etxebizitza multzo berriak eraikitzen ari direnez, eta horren ondorioz, kale, parke, pasealeku eta plaza berriak zabaltzen ari direnez, gogora ekarri behar dugu hernaniar ospetsuak badi-tugula batzuek herrian, beste batzuek kanpoan egin duten lan bikainari esker, beren sorterrria handitzeari laguntza eman diotenak. Hauetariko batzuk aipatzearren, Joaquín Fernández Ayarragaray, Gregorio Arrue, Pedro Sarriegi, Juanito Olano, Olaizola anai-ak, Cesareo Gabarain, Gabriel Zelaia, etab. etab.

Pertsonalitate hauez gain eta zerrenda luzatuko luketen beste hainbestez gain, eta beste ekimen batzuk agortzeko nahia izan gabe, Hernani herriarekin senidetzea egin duen Nueva Guinea (Nikaragua) aipatuko nuke, eta Lasarte-Oria bezalako herria, Hernanirekin izan duen lotura estuagatik.



HERNANIKO KALEAK, PARKEAK, PASEALEKUAK ETA PLAZAK

